

Iztegi-lanetarako ta *Euskera* argitaratzeko, Ormaetxea jaunaren ordezt izendatzea on litzake. Bañan nondik eta zer atera liteken orin saritzat ikusi arte, ez da ezer erabaki.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzañaldia.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 25'an.

Batzañaldi ontara euskaltzain jaun abek datoz : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitiz egin da.

1.º Ormaetxea jaunak efi ta etxe batzuen izen-goitiak azaldu dizkigu ta *Euskera*'n argitaratzeko gorde dira.

2.º Azkue jaunak *modismos* pila aundia irakuñi digu, ta uringo batzañerako beste gai batzuek utzi ditugu.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 26'an.

Aurko batzañaldian izendatzen diran jaunak agertzen dira, ta otoitzez asi da.

1.º Altube jaunaren idazki bat irakuñi da. Idazki au alde aurfetik euskaltzaiñak irakuñi-ta zeukaten.

Altube jaunak deritza: 1.º efiak darabizkien erdalitzak Iztegian ezañi litezke a) baldin euskal-efi eienetan itz oiek zabaldurik badaude ta b) itz oien euskal-berdifiña askoz gutxiago erabiltzen bada. 2.º

badira itz batzuek alkafeekiko bikoitzak : oben-pekatusinismen-fede, etc., eta oyek alderditu litezke, *separación semántica* esan oi dana eragiteko. 3.º loturik datozen itzak : *kafe con leche*, *pan fot*, *ardan-guarda* oyetan erdal-itza eraitzi liteke ta euskerazkoa ipiñi. Ardan-zai, ogi-fot, kafe-esne. 4.º Yakinkuntzan dabil-tzan itzak, geien-geienak aintzinatik izkuntzari zor zaizkio : prantzesak, alemanak keskarik gabe darabilzkite ¿Guk zer egin? Altubek deritza : aben antzera jokatu bear degula. Azkue jaunak, bere iritzi batzuek azaldurik, erantzun dio. Bazirudien lenbizikoz etzirala alkar josten, bañan gerora bateratu dituzte beren iritziak.

Auxe erabaki da : Iztegiari itzaure bat ezañiko zaio ta bertan esango da batzuen ta besteen iritzia ta ontatik etofiko zaigu argibide geiago bein batekoz guzia erabakitzeko.

2.º Urkijo jaunak esku-idazki bat irakuri digu ta bertan euskeratzaz zerbait esaten da. Urkijo jaunak uste du esku-idazki ori Aizkibel jaunarena ote dan.

3.º Iztegi lanean gero jardun degu ta asti luzetxoan.

4.º Aita Donostiaren eskutitz bat irakuri da. Eskutitz oretan Euskaltzaindiari eskerak damazkio urgazle izendatu dutelako.

5.º Ta beste gairik izan ez da, amaitzera goaz batzaraldi au, erabakirik, datoñen Epailean eztegula batzarik izango, ta Joraiñekoak Iruñan izango dirala. Otoitzez amaitu da.
